

HAUSNARKETARAKO FITXA

IZEN-ABIZENAK:KURTSOA ETA TALDEA:.....

GERTAERA NON JAZO DEN.....

DATA.....ORDUA.....IRAKASLEA.....

Tarte handiagoa behar baduzu, orriaren atzeko aldean erabil dezakezu.

1. Zer gertatu da? Konta ezazu gertatu dena modu objektiboan, balioespenik gabe edo kritikarik gabe. Zer, nola, noiz eta norekin gertatu da?

2. Nola sentitu zara?

3. Zergatik jokatu duzu horrela? Zure jokaeraren arrazoiak.

4. Nola uste duzu sentitu direla gainontzeko pertsonak?

5. Zure ekintzek zein ondorio izan dute, zuretzat zein gainontzeko pertsonentzat?

6. Bazenuen beste moduren batean jokatzetik? Nola?

7. Zer bururatzen zaizu egin dezakezula egindakoa konpontzeko eta berriz ere ez gertatzeko?

8. Horretarako prest zaude?

Xedeak

- Nahi ez den jokaera baten gaineko hausnarketa bideratzea.
- Hausnarketa beharrezko pentsamenduen aplikazioan oinarritzea (pentsamendu kausala, ondoriozkoa, perspektibazkoa, alternatiboa, bitarteko-helburuzkoa).
- “Tenperatura” emozionala murrizten laguntzea, bakarkako hausnarketaren bidez, ondoren egin beharreko elkarrizketaren giroa prestatzeko.
- Errutina hau naturalizatzea: nahi ez den jokaeraren ondoren hausnarketa egituratua egitea.
- Pertsona prestatzea, izan dezan, azterketan oinarritutako elkarrizketa lasaia izan dezan, horrela, adostasunak edo konpromisoak erdietsi ahal izateko.

Aplikazioak

- Oro har, bizikidetzaren kontrako jokaera izan duen ikastetxeko zeinahi pertsonarendako.
- Bereziki ikastetxetik edo ikasgelatik bota izan dituzten ikasleendako, edo ikasgelan gisa horretako jokaera bat izan eta oharpenei erantzun ez dien ikaslearendako.

Erabilera

- Irakasle bakoitzak ikasgelara fitxaren ale batzuk eramanen ditu. Gisa berean, zuzendaritzan eta ikasgelatik bota diren ikasleak hartzen diren gelan ere eskura izanen dira.
- Ikasle bati fitxa bat ematen zaionean, lasaitasunez jakinaraziko zaio zein den asmoa: hitz egin ahal izateko, elkar ulertzeko eta adostasun batera iristeko abiapuntu bat lortzea. Halaber, aztertu behar da zein unetan hitz egingen den. Komeni da ahal bezain laster izatea, normalean, hurrengo jolastorduan; jokaera larria bada, komeni da hurrengo eguneko klase batetik ateratzea.
- Fitxa eta elkarrizketa bateragarriak dira erabakiko den zigorrarekin, hala badagokio. Ulertu behar da hezkuntzako neurri autonomoa edo osagarria dela.
- Ikasleak ez du sumatu behar mendekurako edo zigorrerako jarrerarik dagoenik fitxa proposatzen duenaren aldetik; horrela balitz, hezkuntza balioa galduko luke eta zigor huts bilakatuko litzateke.